




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUSEN HERIOTZA

6.GAIA **GURASOAK PARROKIAN**

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**"Aita, zure eskuetan
jartzen dut bizia"**
Lukas 23, 46

1. Helburua

- Jesusen gurutzeko heriotza, bere bizia azken muturreraino maitatuz eman izanaren ondorioztat ulertu.

2. Helburu bereziak

- Jesusen heriotzaren gertaera historikoa ezagutu.
- Jesusek Gurutzean hiltzean agertzen dituen jarrerez jabetu: ematea, Aitarenganako konfiantza eta doako maitasuna.



3. Ideia nagusiak

- Jesusen heriotza: bere bizona osoa emate hutsa izan zela, bere burua oso-osorik eskaini ziela besteei ikusten dugu sinestuedunok Jesusengan.
- Jesusen heriotzaren sena: Jesusen heriotzan, guztioi digun maitasunaren zeinurik handiena ikus daiteke. Kurutzean zabal-zabalik diren Jesusen besoek bitartez, Jainkoak gizon eta emakume guztiak besarkatzen gaitu.
- Ematea, konpromisoa eta doakotasuna: bere burua ahul eta apalenei oso-osorik eskainiz, bizia gurutzean hilez emateraino bizi izan da Jesus; horregatik, Bera da Jainkoak izaki guztioi digun maitasunaren adierazpenik sendoena.




4. Ezinbesteko lagungarriak

- Ebanjelioko txatalak eta kartulina. I. ERANSKINA.
- Ebanjelioko idazkia: Markos 15, 29-39. II. ERANSKINA.
- Silueta. III. ERANSKINA.
- Gurutzearen marrazkia, Fanorena. IV ERANSKINA.
- IXCIS taldearen "Darme del todo" abestiaren audioa.

Garrantzitsua da saioaren jardunbidea ulertzeko eta, alde zuretik, gauza guztiak prestatzeko astia hartzea.

A. ERANSKINAK GURASOEN SAIOA PARROKIAN



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- o1. unea: Agurra eta aurkezpena (15 minutu). 1-3 urratsak.
- o2. unea: Edukiaren garapena (10 minutu). 4. urratsa.
- o3. Unea: Bilketa eta laburpena (20 minutu). 5-6 urratsak
- o4. unea: Otoitza eta barneratzea (5-6 minutu). 7-8 urratsak.
- o5. unea: Familian bizitzeko. 8-9 urratsak.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Partaideei ongi etorria adierazi eta guztiak agurtu ondoren, giro egokia sortuko dugu saioari hasiera emateko. Laguntzaileak landuko den gaia aurkeztu eta sarrera egingo dio. Beste urrats bat emanez, Jesusen heriotza ulertzen saiatuko gara: gertaera historikoa eta Jesusen heriotzaren sena.



1. urratsa. *Baliteke gaiaren inguruan zerbait jakitea ala ez... horregatik, lehenik eta behin, galdera egingo dugu:*

- *Badakizue nola hil zen Jesus*
- *Nolako izan zen ere heriotza?*

Elkarrizketan jardungo dugu bost minutuz, ideiak batera jarriz. Pos-it bana emango diegu bertan ideia hori idatz dezaten. Emandako denboraren buruan, lagun bakotzak gelaren erdian jarriko dugun kartelean itsatsiko du bere papertxoak. I. ERANSKINA (gurutzaren irudia).



2. urratsa. Jesusen heriotzaren ingurukoak ezagutzea da gaurko saioaren helburua; horrela ikusiko dugu bere heriotza Jainkoarenganako leialtasunaren eta ahul eta apalenen aldeko eskaintzaren ondorio izan zela. Bizimodu hau biziaren hazi da eta Jainkoak gizon eta emakume guztioi digun maitasunaren adierazpenik sendoena.



3. urratsa. Jesusen jokaera agintari erlijioso eta politikoekiko liskarren eragile izan zela erakusten diguten Ebanjelioko txatalak irakurriko ditugu. Horretarako, taldekideak bikoteka jarriko ditugu eta bakoitzari II. eranskinetako txatal bana emango diegu, irakurri eta komenta dezaten. (Minutu batzuk eman elkarrizketan jardun dezaten eta bateratze-lana egin).

- Galdera honi erantzungo diote: Idazkian jasotzen denaren arabera, Jesusen zein jarrerak eragiten du liskarra agintariekin? (Laguntzaileak kartulinar jasoko ditu ideia nagusiak).



Bigarren unea. Edukiaren garapena



5. urratsa. Jesusek bere bizia gurutzean eman izanaren esanahiaren inguruko azalpenak emango ditu laguntzaileak. Horretarako, "ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT" izenburua duen materialaz baliatuko da.

Eskema honi jarraituko dio:

- Jesusen heriotza, gertaera historikoa da.
- Zer dela-eta hiltzen da Jesus?
- Zein da Jesusentzat bere heriotzaren sena?
- Zein da guretzat Jesusen heriotzaren sena?



4. urratsa. Hasteko, eta azalpenen aurretik, laguntzaileak Jesusen heriotzaren berri ematen duen Ebanjelioko idazkia irakurriko du: Markos 15, 29-39 (III. eranskina).

Ondoren, gogoeta egingo da galdera hauek kontuan harturik:

- Zer gertatu zaigu deigarrien? Zerk harritu gaitu?
- Testuaren inguruan azpimarratuko genukeen ideia.

Hirugarren unea. Jarduera "Bilketa eta laburpena"



6. urratsa. "Silueta". Saioari amaiera emateko, laburpen erara, Jesusen heriotzaren gertaera historikoan sakonduko dugu. Barneratu eta geure egingo dugu. Bere jarrerak, emate, konpromiso eta doakotasuna gogora ekarriko ditugu.

Siluetaren marrazkia banatuko diegu partaide guztiei (IV. eranskina). Musika jarri eta astia emango diegu silueta horretan deigarri gertatu zaizkien jarrerak, hitzak, keinuak,... idatz ditzaten.

Laugarren unea. Otoitza eta barneratzea



7. urratsa. Saioaren azken zatian, otoitz eta barneratzerako tarteak izango dugu:

- Saioan bizi izandakoa jasoko dugu, egin eta sentitu duguna bihotzetik pasatuz.
- Isiltasuna egin, arnasa lasaitasunez hartu, une batez begiak itxi...
- Barruko isiltasunetik, Aitarenganako konfiantzaren esperientzia bizten saiatuko gara...
- Gurutzeari begira jarriko gara une batez...(V. eranskina - Gurutzearen irudia. Beste aukera bat, erdian gurutze bat jartzea edo otoiztegira joatea da).
- Otoitz eta begiespenean jarraitu, IXCIS taldearen "**Darme del todo**" entzuten den bitartean.



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**

Amaitzeko, elkarrekin esango dugu ondorengo otoitza²

**AITA, ZURE SEME JESUSEN BIDEZ
IRAKATSI DIGUZU NORK BERE BURUA EMATEKO,
MAITATZEKO ETA FIDATZEKO ERARIK ONENA.
EMAN ZURE LAGUNTASUNA, GURE ETXEA
ZEU AGERTZEN ZAREN LEKU BIZIA IZAN DADIN.
BEDEINKA EZAZU GURE FAMILIA ETA EGIN GAITZAZU
ZURE MAITASUN ETA BARKAMENAREN BITARTEKO.
AMEN.**


Bosgarren unea: Familian bizitzeko

 8. urratsa: Familian, nagusi eta txikiak elkarturik, nekaldiaren kontaketa entzungo dugu

- Audioa, Jesus gurutziltzatuari gurutzearen oinetatik begiratzeko dei da.



**Entzuteko,
klik egin irudian**

 9. urratsa. Eskulana: “Elkarrekin Gurutzea egingo dugu”. Jesusek gurutzean den-dena ematen du besteen alde. Gurutzea egingo dugu zapata-kutxa edo esne-brik batekin. Gurutze horretan, gure ingurukoen sentimenduak itsatsiko ditugu.



♦.....
2

Katekesiko 2. mailako gida pedagogikotik hartua. 5. gaia: Jesusek bere bizitza Gurutzean ematen du.

I. Eranskina Ebanjelioko txatalak

Bekatariekin esertzen zen mahaiaren inguruan (Mt 9, 10-13)

Jendea Jesusen atzetik zihoan (Jn 11, 45-53)

Larunbatez sendaketak egiten zituen (Lc 14, 1-6)

Jesusek "Aita" esaten zion Jainkoari (Lk 11, 2-4)

Jesusek Jainkoaren Seme dela dio (Jn 17, 1-3)

Jesusek bekatuak barkatzen ditu (Lk 5, 17-26)

Jesusek bere burua errege izendatzen du (Jn 19, 12-14)

Jainkoa guztion aita de (Lk 5, 29-32)

Jesulentzat, pertsona legearen gainetik dago (Mk 2, 23-28)

KARTULINA: JESUSEN HERIOTZA, NOLA GERTATU ZEN?



¿Jesusen zein jarrerak eragiten du agintarietako liskarra?

II. Eranskina

Marcosen Ebanjeliotik

Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eragin eta esanez: «Hara, santutegia desegin eta hiru egunetan eraikitzen omen duena! Salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!». Era berean, apaizburu eta lege-maisuek ere irri egiten zioten, elkarri esanez: «Besteak salbatu ditik, eta bere burua ezin. Mesias omen duk hori, Israelgo erregea; jaits dadila orain gurutzetik, ikus eta sinets dezagun». Berarekin gurutzean josiak zeudenek ere irain egiten zioten.


Eguerdian, ilundu egin zuen lurbira osoan hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani ?» (Hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»). Hau entzutean , bertan zeuden batzuek esan zuten: «Eliasi deika ari duk».

Orduan, batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion, esanez: «Egon, ea datorkion Elias gurutzetik eraistera».

Baina Jesusek, deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen. Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik behera. Aurrean zegoen erromatar ehuntariak, nola hil zen ikustean, esan zuen: «Zinez, gizon hau Jainkoaren Semea zen».

Markos 15,29-39

III. Eranskina - SILUETA



" AITA, ZURE ESKUETAN JARTZEN DUT BIZIA" (LUKAS 23, 46)

IV. Eranskina - GURUTZEA



" AITA, ZURE ESQUETAN JARTZEN DUT BIZIA" (LUKAS 23, 46)